



Eskola Txikien festaren 25. urteurrena

Eskola txikiko guraso/irakasle/langile, agur.

Gutun honetan ekitaldi baten berri eman nahi dizugu. Aurten, festak hasi zirela 25 urte betetzen direla eta, Gipuzkoako eskola txikien Koordinakundea ari da hainbat ekintza antolatzen. Horietatik lehena URTARRILAREN 28AN izango da.

Egun horretan Aiako **Andatza** eskolan bilduko gara, goizeko 11:00an. Asmoa da paseotxo bat egitea, eta, ondoren, basozain baten laguntzaz, Arrano Etxean sendatutako hegaztiak askatzea, inguruko zelai batean. Hori egingo dugu baldin eta hegaztirik badute, askatzeko moduan. Frontoian ere jostatu ahal izango dugu.

Hegaztiak izan ala ez izan, goiz alai bat igaroko dugu, Gipuzkoako hainbat herri txikietatik etorritako familiekin. Gainera, jatekoa ekartzen baduzu, elkarrekin bazkaldu ahal izango dugu.

25. urteurrena dela-eta Koordinakundea ekintza gehiago antolatzen ari da, eta izango duzue haien berri, bai [Eskola Txikietako Web Gunean](#) baita e-mailen bitartez.

Andatzen elkar ikusiko dugulakoan, ongi bizi.

Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundea

SENDATUTAKO HEGAZTIAK ASKATZEA  
URTARRILAK 28, 11:00  
ANDATZA (AIA)

